

OLERTI

Iru illabeteroko Aldizkaria

Suplemento poético de KARMEL

ZUZENDARI: AITA ONAINDIA — LARREA (ZORNOTZA)
BANATZAILLE: X. P. ALBIZU — BILBAO

IGN. URTEA 1960 GARAGARRILLA-IRAILLA

ERTI BARRIA

(Madrid'eko Ikastetxe nagusian eleder irakasle dan Mumin'ar S. Joxe Mari'k ona zer diñoan gaurko ertiaz. VIDA NUEVA'n oraintsu egindako eritxi-azal-
te edo enkuesta euskeraratuta).

—Zergaitik gaurko ertia? Zer esan nai dau?
Zer asmok darabil?

—Galdera txit maltzurak nunbait. Baiña
dan be zerbait erantzun bear, eta ona nire abu-
na. Gaurko ertian buztartu ezin leikezan joe-
ra bi daukaguz bizkarka, bai egikera edo tek-
nika-saillean bai olerkizkoan. Bear bada, erti-
ariaren askatasuna dozu biok bat datozen mu-
gondo bakarra. Askatasuna lau sailletan:

Lenengo gauzai buruz. Gaur ertiak, gaiaren berjabetasunetik askatzea nai dau sekula baiño biziago. Eta ez bakarrik Goia ezkerro, itsusi, arrunt eta barregarriak eder ta apain-sotillak, aiña balio daualako; bai ta, oraindik errotiago, margolariak, eskulturagilleak eta olerkari lirikak, gaur etxegintzan eta musikan darabillean era berezi ta apartekoak, ots, iduriz-gaiñeko garbitasuna lortu nairik dabilzalako be. Erti-lariak ez dau gura iñoren antzera jokatu ta ibilli, ezta adierazi be; sor-azo bai, ta gauza berrria sortu be. Onek, era ontan esanda, deabrukeria dirudi; baiña beti ez da orrela. Auxe dozu dana: adimenaren berezko irrirtsa.

Askatasuna arcuai buruz. Irakaskintza edo jakite-arauakazko askatasuna be billatzen da, edo gure Unamuno'k esango leukenez, teknika loturetatik aske, norbere eskuko izan. Ikuspen-ertietan asko zabaldua zan beiñola, goi-argiari laguntzeko errazoizko gogarpena baiño askoz geiago zala bertatiko barne-saio azkea.

Askatasuna, irugarrenez, gaiari buruz. Bai ta bestelako bidez izanik be; batzuetan, bada, ez dogu bear lez erabilten, eta beste batzuetan jainko biurtzeraiño jaso oi dogu, izadiaren zati dan aldetik edozein gaik daukan olerki ixil eta eskutu ori.

Askatasuna guenik, ta askatasun alkartu bagea, giza-doe erti-giezko munduari buruz. Orain-tsu esana dot agiriko itzaldi baten ertia gaur euren buru jabe egiñaz doazan errien antzeko dala, askatasun osoa eskaturik; baiña arein antzera, ezetariko alkartze bage, sarri askotan beintzat.

—Erti barria zindo ta eskugarbia ete?

—Sarri, bai; beste batzuetan, ez. Geienik zintzo ta egitia da gaurko ertia. Ta zintzotasun onek olerki-laiño ezotzen dau. Baiña, iñoizkoaren atzean alperkeria, arrokeria edo, soilki, ez jakiña gorde oi jatzu. Gaurko ertiaren oberena

be, edozein tokiko ta askutik iges egin beazko indarketa dala autortu bear.

—Eta luzez iraungo ete dau?
—Orainarteko ertiak eten gabeko jira-bira ta idakuntza izan dau. bai ta aurrerantzean izango be; antzea agortu ta aitzerik ez baita bere adierazetan, naiz-ta oneik askotxo izan, izadiko eta ta bide barriak nabaitzea, agor-eziña da-ta. Egigai da erti-lana, ta egigai oro izatez dozu mugatua. Ertia geldi-ezin da beti ta nun-nai, amaigearren adierazpen sumakorra, bere era guztietan ezin dau ba asetu gure askatasun egiarria. Baiña, nire ustez, gaurko ertieran irabazitakua jabetzerik gorenena betikoak dira, erti klasiakua izan ziran lez.

—Museuetatik atera bear da, bai; baiña zuk aste dozu erti barri au egunerokoaren zelaian egokituta leitekela?

—Ontan ez nator bat zugaz, zertzelada guztietan beiñik-bein. Erti barriaren ederrena museuetan gorde daiteke, nik uste; baiña baita, ezeren eragozpen barik, gaurko eguneroko ta mundiko izan be. Erti barririk geiena olerkiz ta barren-kutuntasunez astun dago.

Baiña gogora egizu margo-ertian bertan be erti abstraktuak lits bat bakar-bakarrik artzen dauala, naikoa txikiña, erti barriaren txoko itzalean, naiz-ta onetaiko lan ugari egiña izan. Nire eritrix, erti lar abstraktua, lar goia, gerora antzera izango da. Egitasuna izan da, ta izango be bai, aldioro, olerki-sorburu joria. Egiazko edozein poema egitasun olerkitu bat besterik ezta.

—Eta eleizetan tinkotuko ete? Gure siñismena kezkatzeko beste ete da?

—Astiroago mintzatu bear onetzaz. Ertia, etoitzarako laguntzen dauskunean da bakar-bakarrik, benetan jainkotiar. Adimen arin azalpeniak naastu dagike soilki gai jainkotiarrezko ertia berez erti jainkotiarra danagaz. Ona, ba:

erti bat izan daike teknikari buruz oso ausarta, erabat txit gogozkoa izanik; eta alderantziz, oso zarrantzale be bai izan daike, eta batera jainkotiar urri, ta eskas. Erti jainkotiarra, ba, gizonari, gogo-bizitzari buruz, "sustraiz" dagokiona dozu.

Jainko-zaletasuna orobat olerti-iturri dogu. Nire aburuz, ertiaren olerti-tokiko iru aundiak Jainko-zaletasuna, gizurentasuna ta giza-maitasuna izan dira.

—Gaur ertietan dakusgun matzarkeri, laburpen, iduriaurkako ta gizatasunik-eza gure aro ontako asmakeri uts txoroa dala, uste dozu? Kondairarik ba al dau?

—Errazoikeriaren gizaldi samalda ondoren, aurtzaro egarri dira margo-ertia ta olertia. Oarrikasi ta kultur tontorrean ezarrita, aurtzaroa bizi nai. Ikus egizu zein samur agertzen yakun gaur mundua umeakaz eta Izadiko sorkari guztiakaz.

Onek iragarten dausku, nire gardiz, sen eta muin-leia barri batez ertiaren kondaira guztira biurtzeko gogo beroa. Len gizonaren ertia suster-susteretik erlijotsua zan, asabakandiko siñu-keraz apainduta; bai ta ba-zan alegizkoa be, gaur bertan be sorkaldetarrena dan lez, barne-bizi-dardaraz kutsutua. Beraz, azal aldetik giza-jantzitako ertia zan. Kistar ertiak be teknika osotasuneko gaillurrak ez ebazan jadetsi ezpirtuzko beeraldi egunetan izan ezik. Erti barriana, ba, aro guztietako erti-iraupenak biztuten dira.

Baiña iñoiz be ez yako eskiñi gaur besteko jaurets-lurrun agirikorik "olerkariaren gogozko aurtzaroa" deitu gengikeon zer oneri.

—Zergaitik jente xea ez da arduratzen gaurko ertiaz? Zergaitik ez dau aituten?

—Ez naiatortzu bat itaun orregaz be. Egia da, orrek "kaleko gizona" deitzen dautsogun orrek, irizpide ta zentzuna izan oi ditula, bai ta aurretikoen erti-aogoxoaren ondorengoa be. Bai-

... kaleko gizonaren aogoxo ori etengabeko al-
... betapean dabilligu, oso arin ta naitara. Erria,
... mael edo tegi zabal baten antzekoa dozu,
... baits eta eramai-urak artzen ditu ta pizkaka-
... kaka eralgi ta ermotu. Gerora erria, kondai-
... ren epaikari aldakaitz eta ziur izan oi da.
... Beste aldetik, ulert-eziña da, errian zer dala-ta
... zian dan sustraitu egiazko olertia, erritzat popu-
... lara baiño zerbait geiago jo ezkerro beintzat.
... Erti ortatik eta erri orren sentieratik sortzen
... dira olerkariak eta olertia. Itz bi erri ta olerti
... gai onetzaz.

Olerkaria, alderdi batetik, iragarle da, edo
... gi barri bat adi-erazten dauskuna; baiña, beste-
... bitarteko edo askoren sentipenak batzen da-
... bezan ari artzaillea. Gizon asmotsuak edestia
... dogi, eta edestiak berebat gizon asmariak. As-
... mari bakarra ta erria. giza ta eme-gai dira,
... edesti eralkundean.

Beraz, jakintza ta ertia, askoren sentipena
... adi-erazten ezpa-dabe, bidekatze negargarrian
... jantzen dira. Baiña, artutako jarauntsi edo on-
... darena ernalarazi ezik, jakintza ta ertia antzu
... ta elkor biurtu oi yakuz.

—Labur: zer jokera deritxazu egokien erti
... barriaren aurrean?

—Esan errez, bete gaitz: ez txatxukeri siñest-
... erreza, ez adikaizkeri setatia. Neuretzat billatzen
... dudana besteentzako be nai neunke: egotegi as-
... kodun arima bat, gogaikarri ez yakun edozein
... urrotz, ez enda ez gizartezko berezkunde bage,
... babesean artzeko.

O.